

txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria

2000 Ekaina • 17. zenbakia

GIMNASIA RITMIKOKO TALDEA



AURKIBIDEA

HAURTZARO INFORMATZEN

• Ikastola eguna	3
• 3. hiruhilabeteko irteerak	4
• Agur!	6
• 3 urtekoak Gladis-Enean	7
• Gure ikasle sarituak	7
• Jose Ostolaza jubilatzen zaigu	8
• Usurbilgoak ikastolan	8
• Idazten dugu!	9
• Ikas pilota	9
• Gazteak eta gerra	10
• Eskoletako tailerrak	10
• Aurtengo ibilaldiak	11
• LH 4. mailakoak ikasi eta ikasi	14

HATZAK BETE LAN

• Gu ere sukaldari lanetan	15
• Astronomia	15
• Nola egiten da ogia?	16
• Depuradora bisitatzen	17
• Ulia	17
• Tren museoa	18
• Bide heziketa	19
• Sendabelarrak	20
• Gero eta jaiotza gutxiago daude	21
• Urdaburu	21
• Zientzia tailerra	21
• Arrazakeria?	22
• Bertsoetan	23
• DBHkoak ikusgelan	25
• Tabakoa	26
• Kiloak	26

GURASOOK JAKIN DEZAGUN

• Kontuz eguzkiarekin!	27
• Zergatik esaten dute gezurra haurrek?	28
• Gaur Elkarrizketa	29

GU ERE KAZETARI

• Iban igerilariari elkarrizketa	32
• Garbitzaileekin solasean	34
• Laburpen tentatzailea	36

NAHASTE BORRASTE

• Zankoak	37
• C'est qui?	37
• Aurkitu irudiak	38
• Letra zopa	38
• Aurkitu zazpi akatsak	39
• Aurkitu errepikatua	39



IKASTOLA EGUNA OSPATU DA HAURTZARO IKASTOLAN

Aspaldiko ohiturari jarraituz, Haurtzarok Ikastola Eguna ospatu zuen ekainaren 18an, eta urtero bezala, egun osoan zehar izan zen ikuskizunik eta zertan parte hartu.

Ikastola Egunaren helburua da, hain zuzen ere, Ikastola-ko proiektua aurrera daramaten guztiok festa alai baten inguruan elkartzea, elkar indar-berrituz, gure euskara eta kulturari tiraka jarrai ahal izateko.

Euskal Herriko eskolak, ikastola den bitartean, guztion laguntza behar du, izan ere, herriarengandik sortutako proiektuak, gehienetan herriak atera ohi ditu aurrera. Haurtzaro Ikastola-ko partaideak (ikasle, langile, guraso, bazkide, jarraitzaile, ikasle-ohi ...) edo besterik gabe euskaltzale guztiok egun on bat pasatzeko aukera ederra izan genuen. Ikastola eta Oiartzungo herria uztartzea da Ikastolaren helburuetako bat, herritarrei ere bertan parte hartzeko aukera emanez.



Como hemos hecho en cursos anteriores, el pasado 18 de junio celebramos el día de la Ikastola. Esta fiesta tiene como objetivo el disfrutar de un día agradable y lúdico entre todos los que de alguna manera participamos en la Ikastola.



3. HIRUHILABETEKO IRTEEERAK

HAUR HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HH 1	MAIATZAK 31	DONOSTIKO GLADIS-ENEARA	EGUN PASA BAT EGITEA
HH 1	EKAINAK 14	HONDARRIBIRA	GARRAIO MOTA EZBERDINAK IKUSTERA
HH 1	ASTEAN BEHIN	PISZINARA	
HH 2	ASTEAN BEHIN	LIBURUTEGIRA	LIBURUAK IRAKURTZERA
HH 2	MAIATZAK 31	OKINDEGIRA	OGIA NOLA EGITEN DA?
HH 2	EKAINAK 9	GURUTZERA	BASERRIA ETA BASERRIKO LANAK IKUSTERA
HH 2	EKAINAK 16	HONDARRIBIRA	LONJA IKUSI, TXALUPAN IBILI ETA JOLASTEA
HH 2	ASTEAN BEHIN	PISZINARA	
HH 3	ASTEAN BEHIN	PISZINARA	
HH 3	EKAINAK 7	PASAIARA	LAGUNEN IKASTOLA EZAGUTU ETA ELKARREKIN EGUNA PASATZEA

LEHEN HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH 1	Ekainak 2	Bertizera	Landareak ezagutzea
LH 2	Maiatzak 5	Irunera	Bide hezkuntzan heziketa
LH 2	Maiatzak 24	Azpeitira	Tren museoa: garraioen lanketa
LH 4	Maiatzak 18	Urnietara	Arizmendi mintegia ezagutzea.
LH 4	Ekainak 2	Oñatira	Gipuzkoa gaiaren lanketa.
LH 4	Ekainak 9	Donostiara	Gipuzkoa gaiaren lanketa.
LH 5	Maiatzak 9	Lezo - Erretereria	Ikaspilota proiektua: Pilotan trebatu beste ikastetxerekin batera.
LH 5	Maiatzak 26	Haurtzaro ikastola	Usurbilgo ikastolakoan musika emanaldia entzutea
LH 5	Maiatzean zehar	Mendibilko txarara	Ekosistemen lanketa
LH 6	Ekainak 7	Pagoetara	Lanbideak: 1. sektorea
LH 6	Ekainak 9	Niessen	Lanbideak: 2. sektorea
LH 6	Ekainean zehar	Pagoartera	Lanbideak: 3. sektorea



**AQUARIUM-A IKUSTERA
JOAN GARA**



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
DBH 1	Maiatzak 9	Haurtzaro-Sorondo-Urdaneta-Listorreta	Soinketa
DBH 1	Ekainak 14-15-16	Barria	Elkar-bizitzen ikastea eta ongi pasatzea
DBH 2	Maiatzak 9	Ernio	Soinketa
DBH 2	Ekainak 14-15-16	Lizarra	Elkar-bizitzen ikastea eta ongi pasatzea
DBH 3	Maiatzak 17-18-19	Lizarra	Elkar-bizitzen ikastea eta ongi pasatzea
DBH 3	Ekainak 22	Sorondo	Elkar-bizitzen ikastea
DBH 4	Maiatzak 15-16-17-18-19	Kataluñara	Elkar-bizitzen ikastea eta ongi pasatzea
DBH 4	Ekainak 22	Arcason	Elkar-bizitzen ikastea eta ongi pasatzea



**Ibilaldia
neurtu zen
baina...
eguraldia...**




1987-2000

Agur esan beharrean gaude DBH 4. mailako ikasleei. Hala eta guztiz ere, gure etxeko ateak beti irekiak izango dituzue eta oso gustura ikusiko zaituztegu berriro gurean. Izan ongi:

Hamairu urte luze

*Jarrera onean
izan zaretelako
gure aldamenean
esan nahi dizuegu
azken egunean:
zuen etxera itzuli
nahi duzuenean*



Uxune Aizpurua Unsain, Egoa Alvarado Delgado, Itsasne Alvarez Lasa, Itziar Amado Mendizabal, Joannes Añorga Olaizola, Mikel Arakama Lopez, Odei Astibia Gereño, Dennis Cejudo Lozano, Yolanda Etxeberria Oiartzabal, Naiara Etxepetleku Marcos, Itziar Fernandez Ibarburu, Andoitz Gezala Etxeberria, Mikel Lizarazu Salaberria, Haizea Loidi Labandibar, Garikoitz Lopez Intxausti, Alazne Martin Askaso, Ioritz Mitxelena Zapirain, Iñaki Retegi Comas, Maialen Samsó Galarza, Maitena Urretabizkaia Pampliega, Odei Zarraskin Perez, Usoa Arbelaitz Lekuona, Josu Arzallus Oiartzabal, Guruzne Azpiroz Ibarburen, Ioritz Azpiroz Lekuona, Fanny Carcedo Cano, Nerea Elizegi Ezeiza, Garikoitz Etxebeste Arbelaitz, Tania Gonzalez Garcia, Aitzol Lasa Olaziregi, Ainara Lasarte Urkia, Ander Lizarralde Jimeno, Aroia Makuso Jauregi, Ainara Mitxelena Ezeiza, Aingeru Oiartzabal Ribera, Jessica Perez Arribas, Iban Pikabea Leonet, Irene Salaberria Saizar, Haizea Ugalde Oliden, Begoña Unanue Artola, Josu Urdanpilleta Goldaraz, Itoiz Zufiria Etxabeguren, Eva Aiestaran Perez, Aitor Alzola Molina, Eihartze Aramendia Iparragirre, Xabier Azpeitia Aiestaran, Jakobe Beramendi Brit, Alazne Bergaretxe Manteola, Ane Gallastegi Goenaga, Geroa Ibargoitia Etxebeste, Aloña Irigoien Otegi, Maitane Iza Carrizo, Egoitz Izagirre Beloki, Haizea Lasa Gracia, Asier Legorburu del Sol, Olatz Lekuona Agirretxe, Xabier Leonet Boubeta, Irati Martiaren Arnaez, Mikel Novoa Urra eta Ixone Ugarte Juanes.



AZKENEAN MOTXILAREKIN GLADIS-ENEARA EGUN PASA EGITERA JOAN GARA

ZENBAT GAUZA EGIN DUGUN!

ANIMALIAK ETA LANDAREAK IKUSI, PARKE POLIT BATEAN JOLASTU ETA ETXEAN PRESTATUTAKO BOKADILO GOXO-GOXOAK JAN DITUGU.

DESIATZEN GAUDE BERRIRO ERE NONBAITERA JOATEKO!

3 URTEKOAK



GURE IKASLEAK ERE SARITUAK IZAN DIRA

Pozegoteko arrazoiak baditu oraingoan ere Haurtzaro ikastolak. Izan ere, bertako bi ikasle sarituak izan dira azkeneko hiru hileko honetan literatur esparruan.



Goiatz Labandibar

Halaxe da, batetik **Goiatz Labandibar Arbelaiz** ikaslea izan da. Ikasle hau DBH 3. mailan ari da lanean gaur egun, eta bere gisara Bartzelonako St. Paul's School international mailako sarian parte hartu zuen. Horretarako **"El canto de las lamias"** izeneko obra bidali zuen eta lan honekin finalisten mailara iritsi zen. Ondorioz, finalera iritsitako lan guztiekin liburu bat argitaratu dute eta lan sarituen artean gure Goiatzek idatzitakoa ere jaso dute.



Usoa Arbelaiz

Eta bestetik, **Usoa Arbelaiz Lekuona** ikaslea izan da saritua. Usoa DBH 4. mailan ari da lanean eta aurtengo Urruzuno

literatur lehiaketan saria irabazi du prosa arloko B mailan. **"Helmugara iristea hori da kontua"** lanarekin aurkeztu zen Usoa eta horrekin irabazi du saria. Saritutako lanak Sagastiberri saileko liburuan argitaratuko dira.

ZORIONIK BEROENAK bai Goiatzi, bai Usoari ere, sari hauek irabaztearekin batera Haurtzaro ikastolaren izena eta Oiartzun herria bera ere oso goian jarri duzuelako. Era berean zoriondu nahi dugu ikastolako irakasle talde osoa, beraiei esker ikasle hauek urrutira iristeko aukera izango baitute.

Dos alumnas de Haurtzaro ikastola han sido premiadas por sendos trabajos literarios. Por una parte, la alumna de 3º de ESO, Goiatz Labandibar resultó finalista en el premio internacional organizado por ST. Paul's School de Barcelona con su cuento en prosa "El canto de las lamias". Y por otra parte, Usoa Arbelaiz, alumna de 4º curso de ESO, resultó ganadora del premio literario vasco Urruzuno en la categoría de prosa con su cuento titulado "Helmugara iristea hori da kontua". Mediante estas líneas felicitamos a las dos alumnas para que en un futuro mantengan su afición a la escritura.



JOXE OSTOLAZA JUBILATZEN ZAIGU



Joxe Ostolaza hasiera batean ikastolako irakaslea, eta bukarrera aldean atezaina izan dena jubilatzen zaigu. Halaxe da, aurtengo ikasturtearen amaieran 30 urtetan irakasle eta kontserje lanetan jardunduen Joxeri jubilatze-ko tenorea iritsi zaio.

Hogeita hamar urte hauetan makina bat lan egindako gizona izan da Joxe. Ikastolako guraso, irakasle eta ikasle askorentzat erreferentzia puntu nagusia hain zuzen ere. Joxe Ostolazarentzat ikastola, orokorrean, gauza serioa izan da, egin behar handiko erakundea. Argi daukagu Joxek eman diola bere bizitzako dedikaziorik handiena Haurtzaro Ikastolari, eta hori oso eskertzekoa da. Eskerrik asko Joxe ikastolari eskainitako guztiarengatik!! Gure etxea zurea da eta bertako atea beti irekita izango dituzu. Etorri maiz!!



Joxe Ostolaza antiguo profesor de la ikastola y actual conserje se jubila. Así es, después de 30 años de dedicación tanto a la docencia como a los trabajos de conserje en la ikastola, le ha llegado la hora de jubilarse. Durante todos estos años Joxe se ha convertido en una persona referente para muchas familias y muchos trabajadores de la ikastola. Para él la ikastola ha sido una organización muy importante y ha dedicado buena parte de su vida a ella. Nunca podremos estar lo suficientemente agradecidos a su labor. Gracias por todo Joxe, y nuestra casa siempre estará abierta para ti.

USURBILGOAK IKASTOLAN

Usurbilgo Udarregi ikastolako 5. urteko eta 5. mailako ikasleek MUSIKA SAIO alai eta dibertigarria eskaini digute. Benetan polita eta txalogarria.

MILA ESKER!!



Pasaia lizeoko lagunekin idazten gara



KAIKO LAGUNA K
ZERMO DUZ ZAURETE?
GUONDO GAUDE
ETAZUEK?
GUKZU ENI KASTOLA I KU
S TEKO GOGOA DUGU
GUATZO PISTIVARA
TUANGIVEN
GARRELANAGUSTRATUAN
BEHREDEGU
LARRAUNE RATUAN BEARDU
AGUR ETAMUXUBAT.
WE-ETA-LACDA.

IKASPILOTA




Aurten ere, HAURTZAROKO 5.MAILAKOEK - GIEk antolatu ohi duen IKASPI-
LOTako saioan parte hartu dugu.

IKASPILOTako saioak pilotan jardutea, zaletasuna, beste ikastetxekoekin harre-
manak (Pasaia - Lezo, Elizalde, Orereta, Langaitz eta Haurtzaro) eta euskararen
erabilera sustatzea ditu helburu.

Saioa bi zatitan banatu da: lehenengoa, Lezon eta Oiartzunen burutu da; bigarrena,
berriz, Oreretako frontoian. Azkeneko saio honetan lehiaketa zegoen tartean eta
hirugarren postua lortu dugu.

ZORIONAK!!!





"GAZTEAK ETA GERRA"

Imajina al dezakezue nolakoa izango litzatekeen zuen bizimodua gau eta egun lehergailu-eztanda, tiro eta era guztietako erasoen artean? Nola biziko zinatekete zuen senideek gerran borrokatze-
ra joan beharko balute edota eraso batean hil eta bakarrik geratuko bazinete? Suntsitutako hiri batean, ez dendarik, ez eskolarik, ez jan-edatekorik, ez argi-indarririk, ez etxerik, familiarik, lagunik...ezer ez duzuela geratuko bazinete? Zail da imajinatzen baina horixe da Balkanetako gazte askok jaio zirenetik ezagutu duten egoera bakarra. Orain gerra bukatu da, baina hiria eta bizitza osoa berreraiki beharrean daude.

Bizitutako esperientzia gordin hauen berri ezagutzera emateko, SOS Balkanes-ek antolatuta eta hemengo eta Gorazde-ko instituzio publikoen dirulaguntzarekin "Gazteak eta gerra" izeneko topaketak eratu dira. Gorazdeko gazte-talde bat ibili da Gipuzkoako zenbait ikastetxetan zehar beren egoe-raren berri ematen eta gurean ere, Oiartzon, izan genituen joandako apirilaren 12an. Hala ere, hauek etorri aurretik, Etikako saioetan zenbait ekintza burutu genuen hauekiko harremanak sendotzen lagundu zigutenak. Lehenengo urratsa, dokumental bat ikustea izan zen. Bertan, gerra garaian Gorazde hirian izandako erresistentzia jorratzen da zorrozki. Bigarrenik, bertako egile batek gerra amaieran kokatuta egindako komiki bat ere irakurri genuen. Bosnierazko hitzik nagusienak eta ohiko esaldi batzuk ere ikasi genituen gazte hauekiko solasaldia beroagoa izan zedin. Ondoren, zenbait hormirudi itsatsi zizkiguten gure pasiloetan, garai bateko Jugoslaviaren historiari buruzko datu orokorrak eta



Oiartzoko ikasleak eta bosniarrak, topaketaren ondorengo bazkarian.

ondorioz, gerra piztearen arrazoiak argitzen zituztenak. Azkenik, SOS Balkaneseko neska batek ere eman zigun historiaren ikuspegi orokorra ordubeteko hitzaldi saioan.

Prest ginen, bada, Bosniarrekiko topaketarako. Agur dantza batez egin genien harrera eta ondoren, bi orduz jardun genuen solasean, galde-erantzunean... Benetan ikasketa aberasgarria! Bukatzeko, agur ezin goxoagoa: gutako batzuk eta bosniarrak elkarrekin joan ginen bazkaltzera eta harremanak sendotzera.

"LOS JÓVENES Y LA GUERRA"

El pasado 12 de abril tuvimos la oportunidad de conocer a un grupo de jóvenes bosnios que se acercaron a Oiartzon para contarnos las experiencias vividas en su ciudad durante y después de la guerra en la exYugoslavia. El encuentro fue organizado por SOS Balcanes para dar a conocer la estremecedora situación de estas personas entre los escolares guipuzcoanos. Para llegar a entender mejor a los jóvenes bosnios, realizamos ciertas actividades en las horas de Ética: un documental sobre la resistencia en Gorazde, un comic cuya historia se sitúa en el final de la guerra, paneles informativos sobre la historia y las razones de la guerra, una charla... Finalmente se produjo el encuentro y nuestros alumnos conocieron esas experiencias por boca de los mismos protagonistas. Como despedida, comieron todos juntos mientras estrechaban relaciones.



ESKOLETAKO TAILERRAK



Urtean zehar egindako zenbait lan aurkeztuz
ORERETAKO ESKOLETAKO TAILERREN

5.astean parte hartu dugu. Erakusketara,
material desberdinez(buztina, xaboia, kartoia
eta birziklatzeko materiala) eginiko eskulturak
eraman ditugu.

A ZE NOLAKO ARTISTAK DITUGUN!!!


Aurtengo Ibilaldiak



HH 3. maila: LARRAUL



LH 1. maila: BEIZAMA





LH 2. maila: LESAKA



LH 3 maila:
ULIA



LH 5 maila: GASTEIZ

Barrian barrena!




DBH 1. maila

2000
ekainak
14 - 15 - 16



DBH 1. maila: BARRIAN



DBH 2. maila: LIZARRA



DBH 3. maila: LIZARRA



DBH 4. maila: BARTZELONA



LH 4. MAILAKOAK IKASI ETA IKASI



LH 4. mailakoak ingurunea gaia dela eta, Gipuzkoako Oñati herrira egindako ibilaldian, ezagutzak zabalduz jarraitzeko laster inguratuko diren Unibertsitatara hurbildu ziren.



Era berean ere 1. sektoreko lanbidearekin topo egin zuten Urnietako Arizmendi mintegian.



GU ERE SUKALDARI LANETAN

JANARIAK EZAGUTZEN ETA
PROBATZEN ARITU GINENEAN,
ETXETIK EKARRITAKO FRUTEKIN
MAZEDONIA BAT
PRESTATU GENUEN:
LEHENENGO FRUTAK ZURITU,
GERO ZATITU,
AZKENIK NAHASTU ETA DASTATU



3 URTEKOAK

LEHENENGO MAILAKOAK
GONBIDATU GENITUEN GURE
MAZEDONIA JATERA ETA ASKO
GUSTATU ZITZAIEN, DEN-DENA
JAN ZUTEN.
GUTAKO BATZUENTZAT, OSO
GOXOA ZEGOEN BAINA
BESTEENTZAT..... AAAGGGG.



ASTRONOMIA

APIRILAREN 30EAN
KRISTINAK ASTRONOMIARI
BURUZ HITZALDI BAT
ESKAINI ZIGUN.
4 URTEKO NESKA-MUTILEN ETA
IRAKASLEEN PARTETIK,
ESKERRAK KRISTINARI ASTROEI
BURUZKO INFORMAZIO
GUZTIAGATIK, ASKO IKASI ETA
GUSTURA EGON GINELAKO.

4 URTEKOAK



NOLA EGITEN DA OGIA?



1

MAZA EGITEN



2

MAZA ZATITZEN



3

LABERAKO
PRESTATZEN



4

AZKENIK OGIA



DEPURADORA BISITATZEN



ASTELEHENEAN AUTOBSEZPORTU BERRI
ZENTRALERA JOANGINEN ETANERE
AITAK ERAKUTXI ZIGUN URA
NOLA GARBITZEN ZEN.
IBLADIA EGITEKO JOANJOXE
REKIN IZEGEN GENUEN.
JOANJOXE MARI UDALEKERO
LANGILEAK DIRA
JOANJOXE GORKA MITXEL
MAREN AITADA ETA JOXE M
ARI IBAILEKUONAREN ADA.
ESKERRIKAS KO JOANJO
XE ETA JOXE MARI
H.H.3. MAILAKO NESKA
MUTILAK

ULIAKO TXANGO INGURUNEA EZAGUTUZ



Aurtengo ikasturtean Uliako Albergera joan gara inguru horrek eskaintzen duen naturaren edertasunaz gozatzera. Baita ere bertako antolakuntzak egokitzen duen programari jarraituz ekintza hauek burutu genituen:

- Pasaia joan, txalupaz ibili, Planetarium bisitatu eta izarren kokapenaz zertxobait gehiago ikasi.
- Donostiara oinez jaitsi eta Aquarium-era gerturatu ginenean, berriz, delfina ikusi ahal izan genuen: hura poza! A ze ikustaldia!


Eta gauetan bukatzeko: JOKUAK

EDERKI PASATU GENUEN!

ZORAGARRIA IZAN ZEN!



Tren museora bisata



Museora sartzei ginean lehenengo
 iburri genduen lehenengo
 lehenengoak, MAITE
 igero ginen



Yenen museoko trenik
 zeharrena (100 urte lehen
 zeharrena) iburriari ginen

Aspaldiko "TRANVIAN"
 iburriak auzuen ere
 igero ginen

Oso ondo pasu ginen
 eta gauza asko ikasi
 genituen!)

2. maila





BIDE HEZIKETA

Erreunadak eta matoak
renafara gorria dutenez,
oinetakoak paratzen
ar dira.



Ikusten dugunez denek
seinaleak errespetatzen
saiatu ginen.

Hemen ikusten da
zein garrantzia duen
guzurketa.



Beraz oso ondo pasa genuen eta asko ikasi genuen.

2. maila



SENDABELARRAK

Nekarikin bide gorria
jan gara eta senda loka
larak bilduditu.



Nekarrek egandakad eg azkutzeko
idatziz egiten ditugu.


gure gelara itorri eta itxasi tera
sendakularrak



berango mailakak



GERO ETA JAIOTZA GUTXIAGO DITUGU ONDORIOAK :



1. Goiko mailetan ikasle kopurua handiago da beheko mailetan baino, beraz JAIOTZE TASAK behera egin du.
2. JAIOTZE TASA jaitsi denez ikastolako ikasle kopuruak ere behera egin du.
3. Bestalde, ikastolako mutilen ikasle kopurua neskena baino handiagoa da.
4. Gaur egun 1. SEKTOREKO lanbideek behera egin dute.
5. Benetan asko indartzen ari den sektorea 3a. da.
6. Populazioaren portzentaia handienak 2. eta 3. sektoreetan egiten du lan.

6. maila




Mutilak, argazki atzetik irten zaitezte!



DBH 2. mailako ikasleak "IBAIALDE" ingurugiro proiektuan



ARRAZAKERIA?



Haurtzaro ikastolako DBH 2.mailakoek, Erlijio-Etikan bideratutako eta Gipuzkoako SOS Arrazakeriak "Bizi dezagun aniztasunaren aberastasuna"ren izenean antolatutako topaguneetan parte hartu dute.

Lau kultura ezberdin hurbiletik ezagutzeko aukera aparta izan dute: MAGREA, LATINOAMERIKA, AFRIKA BELTZA eta IJITOAK.

Topaketa hauetan lortu nahi izan dena da gure artean bizi diren beste kultura ezberdinetako jendearekin harremanetan jartzea.

Helburua, harreman hauen bitartez kultura ezberdinetako personengandik elkartzen gaituena, bereizten gaituena baino garrantzitsuagoa dela jabetzea da. Baita ere, ezberdinak diren personak errespetatzea eta ahal den neurrian estereotiporako eta injinaziorako joerak haustea.





IKASTURTEA BERTSOTAN

Joan zaigu aurtengoa ere. Hasi ginenean bukaerarik ez genuen ikusten, eta orain, berriz, hasierari begira jarriak gaude... hurrengo urtekoari. Joan zaigu, bai, Lexoti Jaialdia; ongi joan ere! Bat-bateko saioa, polit eta bizia, eta bertsopaper lehiaketa, goi mailakoa. Iban Dominguezek irabazi du lehen saria, *Itsasoa* lanarekin. Bigarrena Itziar Makazagak eraman du, *Nire aitona gogoan* sortarekin, eta hirugarrena Alaia Martinek eskuratu du, *Bakarrik munduan* lanarekin.

Hiru sortak ere aipagarriak dira, eta merezi du bertso batzuk hona aldatzea:

ITSASOA

Egilea: Iban Dominuez

Doinua: Aita izena

Bakterioak han sortu ziren
eta han sortu bizia
han haunditu ta han ugaltu zen
gure lehenengo hazia
itsasoetan oinarritu da
gizonen bizi guzia
itsasoetan aurkitzen baita
guk beharreko grazia
bera baitugu gu sortu gaitun
mirari gozo-gazia.

Jacques Cousteau dugu bere izena
lanbidez itsas jainkoa
bere eskuak sendatu dute
sendatu ezinekoa
itsasoagatik lan asko egin zun
nolako ahalegin bapoa!!
Baina natura salbatutzeko
lan asko ez da nahikoa
bere izan zen Neptunon pare
baina lur lehorrekoa.

Petroleroak enbarkatzean
sortzen didate ikara
ta bitartean enpresariak
egiten dute algara
eta ondoren etorriko da
itsas hilketen bolada
soluzioak jartzen ditugu
eta beraiek patxada
kontsumitzaile izan baino lehen
BIHOZDUN PERTSONAK GARA.

NIRE AITONA GOGOAN

Egilea: Itziar Makazaga

Doinua: Aita izena

Oraindik ere gogoan daukat
Nire aitona nuena
hura joan eta hustu zitzaidan
oso-osorik barrena
joandakoan eraman zuen
nire bihotzaren laurdena
eta oraindik oso haundia
da barruan dudana pena
eta orain zeinek konponduko du
bion arteko etena.

Nere ondora ni lasaitzera
etorri zitzaidan ama
bere hitzekin nere barrutik
kendu zidan kriston zama.
Baina hala ere nik pentsatzen dut
biok alaitzeko plana:
etorri zaitez, aitona maite,
zu berriro niregana
edo bestela zu lasai egon
ni joango naiz zuregana.

Biok batera hodeietatik
buelbaka ibili ginen
nere bihotz ta gorputzarentzat
bizi berri bat zen hasten
nere ondoan berriro ere
hantxe zintudan ikusten
elkartu ginen behin betirako
eta pozik jarri nintzen...
Lehengo eguneko nere ametsa
oso polita izan zen.



BAKARRIK MUNDUAN

Egilea: Alaia Martin

Doinua: Nere senarrarekin

Zer duzu neska eder
zerk kezkatzen zaitu?
Zure penak kontatzen
mesedez saiatu
zure pena iluna
dezagun argitu
zure penaz ni ere
bainauzu penatu.

Nire aitona maitea
zeruan da iada
ta nik aurkitu nuen
ohean etzanda
entzun beharrekoa zen
negarren etzanda
haren oroitzapena
nire bizitza da.

Beraren irria nahiz
itzali berri den
bihotza ezin utzi
triste eta herren
istorio hau baztertu
behar dudan arren
EZ DUT AHAZTUKO ZER DEN
ETA ZER IZAN ZEN.

Eta Eskolarteko Bertsolari Txapelketa ere joan da. Ikastolako sei lagunek parte hartu dute bat-bateko saioan, eta idatzikoan, berriz, auskalo zenbatak! Bat-batean aritzeko bi talde osatu ditugu, eta bat finalera iritsi da (Hautzaroko eta Elizaldeko lagunek osaturiko taldea). Ander Lizarraldek handien mailan kantatu du, eta idatzizko atalean bi aipamen jaso ditugu: Maddi Suarez eta Alaia Martin bereizi dituzte hainbaten artetik, baina Leire, Iban, Jurdana... ere ez omen zebiltzan urruti. Zorionak denei, bai irakasleei eta bai ikasleei.



Lexoti jaialdiko argazkia; talde horrek emango du zeresana aurrera ere.



Bideogintza-Informatikako ikasleek sorturiko lanak IKUSGELA (ETB-1) saioan ikusgai

Haurtzaro ikastolako DBH 4. mailako ikasleek etapa bukatzerakoan; **bideogintza-tailerra, informatika** eta beste arlo nagusietako elkarlanari esker, bideo-lanak (telebista-saioak, alegia) sortzen ikasten dute; **ideia berriak** asmatuz, **gidoiak** osatuz, irudiak **grabatzuz, editaia**k burutuz...

Bestalde, informatika arloan, sare telematikoko nagusi den horretan ikasleek lehen pausuak ematen ikasten dute; hara non, **WEB** orrietan informazioa eskuratuz, lagunen artean posta elektronikoaz (**E-POSTA**z) eta elkarriketza informatikoetan parte hartuz; eta **CHAT** direlakoak erabiliz harremantzen hasiak dira. Azkenik, bideogintza eta informatikako baliabideen arteko koordinazioa bideratzea lortzen dute (diseinu grafikoak, tarjeta grafikoak...) informatikako programa ezberdinak erabiliz. Era honetan, teknologia berrien inguruan sortutako snobismoa gainditu nahian, baliabide horiek pertsonaren garapenean lagungarria izango diren tresna bilakatu ditu-

gu; eta helburu baino, bitarteko tresnak direla azpimarratu behar dugu.

Ikasleek egiten dituzten lan hauen fruituak epe luzean norberak frogatzeko aukera izango dutela jakin dakigun arren, dagoeneko lehen emaitzak jasotzen hasi dira. Haurtzaro ikastolan bideogintza eta infomatikaren artean garatutako proiektu berritzaile honen barruan, orain arte egindako lanaren berri eta aurtengo ikasturteko helburuak azaltzeko asmoz, Euskal Telebistak (ETB) duen IKUSGELA izeneko heziketa programaren arduradunekin ikasturtearen hasieran harremanetan jarri ginen.

Harreman horien ondorioz, ikastolako ikasleek egindako lanak bidali egiten dizkiegu; programa honen arduradunek gonbidatuta ikasleak Miramonen Euskal telebistaren platora joan eta bertan elkarriketza eginez, programaren grabaketan parte hartzen dute. Titulu horien artean, honako lanak aipa ditzakegu:

- "Iragarkiak: **Nozila iragarkia**", "Ihauteriak '98: **harriketarrak**", "**Bideogintza tailearraren esperientzia**";
- Gizarte arloan: "**Eremu hesituak**", "**Emakume sufragistak**" eta "**Maiatzaren 1a**" dokumentuak.
- Natur Zientziak arloan: "**Ibaialde '97 kanpaina: Oiartzun ibaia**", "**Oiartzun ibaia: landaredia**" eta "**Unibertsoaren egituraren teoriak**".
- Plastika arloan sortutako lehen laburmetraia: "**Irakasleen mendekua**" (14 min.)
- Eta, **Erori Zein Erori parodia**.

Grabazio ezberdinetan parte hartutako ikasleak: Usua Arbelaitz, Tania Gonzalez, Maitane Iza, Geroa Ibar-goitia, Aingeru Oiartzabal eta Garikoitz Lopez.

Inaxio Retegi eta Ramon Gorrotxategi
Haurtzaro ikastolako DBH
Informatika eta Bideogintzako irakasleak



TABAKOAK

Ondorengo lerroetan tabakoa eta honek gaur egun gizartean sortzen dituen eztabaidei buruz arituko naiz.

Hasteaz batera argitu nahi dudana zera da: tabakoak menpekotasuna sortzen du pertsonengan, beste edozein drogak bezala. Are gehiago, azken egun hauetan entzun dudanez, tabakoak sortzen duen adikzioa kokainak sortzen duena baino handiagoa da. Hau dela eta, ez da harritzekoa erretzeari utzi nahiak hainbeste buruhauste sortzea.

Azkeneko datuek diotenez, egun munduan 1 100 milioi erretzaile daude eta nire inguruari dagokionez, egunetik egunera erretzaile kopurua igotzen ari da. Honek asko kezkatzen nau, jendea ez baita konturatzen erretzeak ekar ditzakeen arazo eta gaixotasunez. Hain zuzen ere, tabakoak 24 gaixotasun desberdin sor ditzake eta gainera, horietako asko hilgarriak dira. Hau gutxi ez balitz, kalte horiek ez dira erretzaileentzat bakarrik: beren ingurukoek ere zigarroak askatzen dituen ke guztiak arnasten dituzte eta ondorioz, beraien osasuna kaltetu egiten dute.

Hori horrela delarik, gero eta entzunagoak dira erretzaile ez direnek beren eskubideen alde egiten dituzten protestak. Zenbait lurraldetan, Estatu Batuetan esaterako, herriaren arabera ezin da kalean ez inon erre, norberaren etxean izan ezik.

Eztabaida honen aurrean zer egiten du gobernuak? Gauza gutxi, baina ez da harritzekoa kontuan izaten badugu tabakoaren industria eta salmenta diru-iturri izugarriak direla gobernuarentzat. Dena delarik ere, urtero tabakoaren aurkako kanpainak kaleratzen ditu gobernuak, nolabait honen kontsumoaren alde bere burua ez erakustearren.

Testu honi amaiera emateko esango nukeena zera da: tabakoa, jendearentzat onartzea zaila bada ere, droga hutsa da. Baina legezkoa den bitartean ni ez naiz inor erretzaileei ezer esateko, nire eskubideak hausten ez dituzten bitartean, noski.

**Iara Vivar
Batxilergoa 2.**

KILOAK

Gaur egun kiloak direla-eta gure gizarteak sortu duen arazoa larria da. Gehiegizko kiloek gaixotasun larriak sor ditzakete baina baita kilo gutxiegi edukitzeak ere. Telebista pizten dugunean zer da ia beti ikusten duguna? Gorputz argaleko emakumeak eta gorputz indartsuko gizon altu eta guapoak. Hori dela eta, telebistako pertsona horiek "prototipo" gisa hartzen ditugu eta haien gorputz berdina izaten ahalegintzen gara; horren ondorioz anorexia bezalako gaixotasunak sortzen dira, lehenbailehen sendatzen ez badira hilgarriak izan daitezkeenak. Urteak pasa ahala, gainera, arazoa larriagoa bihurtzen ari da, medikuek diotenez anorexia kasuak areagotzen ari baitira. Harrigarriena zera da: telebistan azken urteotan gaixotasun hauei buruzko datu ugari ematen ari dira, hauek dituzten arriskuak eta ondorioak azalduz, baina aldi berean, eta betetzen duten lan babesle

horri aurka eginez, behin eta berriro erakusten dizkigute modeloen eta aurkezleen gorputz eskeletikoak eta hori jende askok eredu gisa hartzen du.

Hala eta guztiz ere, kiloek sortutako gaixotasunak ez dira telebistak bakarrik sortuak, izan ere, eta batez ere udaberrian hasita, aldizkariak argaltzeko iragarki ugari aipatzen baitizkigute. Zer dela eta argal egoteko behar hori? Erru guztia gizarteak du, berak sortu baitu irudi mehe eta zentzugabeko hori.

Arazo honi aurre egiten jakin behar dugu eta batez ere gure gorputza onartzen.

Hala ere, argal egotea moda bat besterik ez da, aspaldian gorputz "ereduak" erabat desberdinak baitziren.

**Ainara Sarasola
Batxilergoa 2.**



KONTUZ EGUZKIAREKIN !!

U dara denez Katixa eta Markelek piszinara joatea erabaki dute. Katixa Markelen etxera iritsi denean hau eguzkitako krema ematen ari zen Katixak barre egin eta berak ez duela sekulan kremarik ematen esan dio.



Aizu, nik entzun dut eguzkitan jarri baino 20 minutu lehenago eman behar dela eta gainera sendagileek eguzkiarekin kontuz ibiltzeko diote. Planetan edo ez dakit non, hor nonbait, ozono edo horrelako zerbait izena duen geruza edo zerbait hautsia omen dago eta eguzkiak indar askorekin berotzen omen du.

- Zer, nahi duzu krema eman? -galdetzen dio Markelek.
- Ez, ez, nik nahi dudana bakarrik piszinara joatea da-erantzuten dio Katixak.

Goiz guztia piszina pasatzen ondoren, bazkaltzera joateko ordua iritsi da. Katixak ez du etxera joan nahi eta bertan gelditu da otarteko bat jatez. Markelek harrituta, honela esaten dio:

- Baina, zuk ez al dakizu egardia dela eguzkiak gehien berotzen duen unea. Goazen etxera, ondo bazkalduko dugu eta gero berriz etorriko gara. Hala ere, arratsalde osoa izango dugu oraindik jolasteko eta eguzkia hartzeko.
- Uste dut zuri ez zaizula niri hainbat gustatzen piszina eta eguzkia. Zu lasai joan etxera eta gero nahi duzunean etorri, ni badakizu hemen egongo naizela-esanez agurtu zuen Katixak Markel.

Markelek krema bertan duela eta ea ematea edo uztea nahi duen galdetu dionean ezetz erantzun dio.

Honela Markelek etxean bazkaldu, berriz krema eman eta arratsaldean piszinara iritsi denean han aurkitu du Katixa uretan eskuak mugituz berari deika.

Arratsalde pasa polita egin dute. Gauean oheratzekoan Katixa erabat erreta dagoela konturatu da. Piper-gorri baten itxura du. Gorputz guztiko mina du eta ezin du pijama jantzi.

Negarrez eta kezkatutik Markeli hots egin dio telefonoz.

Markel, arrazoia zenuen. Erabat erreta nago, oso gaizki sentitzen naiz. Zer egingo dut orain?



Markelek amonarekin hitz egin eta Katixari deitu zion. Katixa negar malkotan zegoen.

- Katixa, utzi negar egiteari eta ondo-ondo entzun esan zion Markelek.

Gure amonak dioenez hainbat gauza ezberdin egin ditzakezu:

- * Yogurrekin igurtzi erreka duzun ingurune guztia. Yogurra naturala bada askoz ere hobeto.
- * Kalendula loreen infusioa egin eta gorputzean kotoi batekin eman. Kalendula lorea ezagutzen duzu? Bai, hori da, etxeetako jardinetan apaingarri moduan dagoen lore laranja-laranja hori. Olio ere izaten da herboristerietan.
- * Pepinoa ere ona da. Nahi baduzu likuadoran pasa eta kotoi batekin kalendula bezala eman edo bestela, zuzenean xerratu eta erredura duzun tokian ipini.
- Beno Katixa, ea gure amonak emandako kontseiluek on egiten dizuten eta hurrengo baterako badakizu krema ematea eta eguzkia ordu egokietan hartzea zein garrantzitsua den.
- Bai, Markel, bai. Esker mila eta bihar arte.

Nekane Martiarena



ZERGATIK ESATEN DUTE GEZURRA HAURREK?

Gezur guztiak ez dira berdinak. Ziur bat etorriko garela horretan denok! Hor ditugu, esate baterako, gizarteko "heziera on" baten izenean onartu eta bultzatzen direnak: "Oso goxoa zegoen otordua!" Eta bien bitartean: "Ene! emakume honek ez daki sukaldean!".

Adibide bat besterik ez da. Hainbat eta hainbat gezur ditugu, besterik gabe, onartuak eta horien artean "errukizko gezur" edo gaztelaniaz "mentiras piadosas" deitzen ditugunak. Gezurra, beraz, gure kulturaren dago.

Haurrek erabiltzen dituzten gezurrei begiratu, hiru gezur mota, nolabait esateko, azpimarratuko nituzke.

1. Haurrak 5, 6, 7 urte inguruan erabiltzen dituen "broma" edo "txantxa" dira. Haurrek halakotzat hartzen dituzte; helduok engainatzeko asmoz erabiltzen dituzte gezurtxo hauek; umearen gaitasun berri bat frogatu nahiez agertzen dira. Adibidez: "Ama ebaki bat egin dut!" Eta inguratzen garenean: "Sinestu egin duzu!!".

Gezur mota honetan era askotakoak egon ohi dira eta haurrek oso ongi bereizten dituzte; baita adierazi ez direla benetako gezurrak, zeren eta bukaeran beti argitzen baitute esandakoa gezurra ala egia izan den. Gezur mota honen helburua, beraz, heldua tronpatzea baino gehiago beraien ahalmena frogatzea da.

Jolas giroko sasi gezur honen alboan, ordea, gezurrak araudi sozial bat arbuiztzen duen gezurra dago; hau da, elkarrekiko **konfidantza** urratzen duena. Ildo honetatik, bi gezur mota azpimarratuko ditut, aurretik adierazitako gezur motak osatzeko.

2. Nork bere burua goraiatzeko, alardeak egiteko erabiltzen dena eta errealitatean gertatzen ez diren egoerak agertzen dituen gezurra.

Gezur mota honen adierazle litzateke honako adibide hau: haur batek behin eta berriro aipatzen zuen aste-bukaeran aitarekin hainbat gauza egin zuela... baina bien bitartean guk bagenekien hori ez zela egia, aita kanpoan lanean baitzen. Adibide bat besterik ez da, baina horrelako gezurrak agertzen direnean norbaitengan, pentsa genezake zamatsua egiten ari zaiola halakoari errealitatea. Gezur hauek kontuan hartzea merezi dute eta haur honek, gure ulerpen eta euspen eta sostengu osoa jasotzea.

Mota honetako gezurraren azpian gutxitua sentitzen den haur bat egon daiteke.

3. Gezur gehienak, alabaina, gaizki egindako zer-baiten ondorengo zigorra saihestu nahirik esaten dira; edota, bestela, egin beharreko zer-bait ez egiteko asmotan. Adibide garbia dugu, jolas egin ahal izateko, etxeko lanik ez dutela dioten neska-mutikoenak.

Gezuraren aurreko gurasoen erantzunak gertatutakoaren garrantziaren arabera izan beharko luke. Hori bai: haurrak jakin egin behar du heldua **enteratu egin dela**. Nolanahi ere helduok sarritan alde batera utzi beharko genuke haurrari galdezka eta **aitorpen** eske jardutea, hori beharrezkoa ez denean batez ere. Eta hori, asmo batekin: haurra **gezuraren katean** erortzera ez bultzatzeko.

Nolanahi ere, hona norberarentzako galdera batzuk:

- Zer ikusi, hura ikasi. Helduok gezurrari buruz dugun jarrerak garrantzi handia du, gure heziketa-estiloak duen bezalaxe.

Oso permisiboak gara? Gure seme-alabak gure arreta eskatzen ari al zaizkigu beren jokabide eta gezurrekin?

Gehiegizko babesa eskaintzen diegu?

Ala alderantziz, oso exigenteak gara eta, edozein hutsegite gogor hartzen dugulako, araudia negoziatzen ezina delako, edo..., gezurrak esatera behartzen ditugu?

- Hala eta guztiz ere, gure seme-alaben jokabideak merezi lezake gurasoen "zigorra".

Lehen aipatutako adibidearekin jarraituz —etxeko lanei buruzkoa, alegia— ez ote litzateke hobe, alde batetik, etxeko lanak eginaraziko dion zigorra jartzea ("astebukaeran elkarrekin egingo ditugu lanak") eta, bestetik, apurtutako konfidantza berreskuratzen lagunduko duena ("ostiralero andereñoari deituko diot, egia esaten didazula ziurtatu arte")?

Beste hitzetan: ez al genituzte kontuan hartu behar, alde batetik, egindakoaren **konpontzea** eta **erreparaketa** eta, bestetik, konfidantza **berreskuratzea**?... Beti ahaztu gabe denok, —baita haurrek ere—, esperientziatik ikasten dugula

Miren Garbizu
Ikastolako psikologoa



GAUR... ELKARRIZKETA MERTXE AIZPURUArekin

Mertxe Aizpurua usurbildarra dugu jaiotzez, baina oiartzuarra dela esan genezake bizibidez; ez alferrik daramatza 15 urte hemen gure artean, Oiartzunen.

Seme baten ama da eta Haurtzaro Ikastolako gurasoa.

Lanbidez kazetaria da. Eta honi buruz zalantzarik gabe esan dezaket eskarmentu handikoa dela, bai lanbide horretan daramatzan denboragatik, bai lana gauzatzerakoan erakutsi duen abilezia eta adorea gatik.

Urtez ez ditu oraindik "tako" asko jaso, baina ezin da JASP horien artean sartu. Orain 20ren bat urte hasi zen adinez aurrera goazenok gogoan dugun *Punto y Hora* aldizkarian 1981etik 1985era. Jarraian Egin egunkarian eta honen *Euskadi-Politika* atalaren arduran ikus dezakegu bere izena 1998a arte; hau da, egunkaria itxi zuten arte. Gaur, berriz, *Gara* egunkariaren zuzendaria dugu, sorreratik bertatik.

Txinpartetik natorrenez, adierazi diot gaurko elkarrizketak ukitu berezi xamarra izango zuela agian. Hortik abiatu gara gure gaian



Mertxe, profesionala zara –eta ardura handiei aurre egin behar diena, gainera– eta gurasoa zara. Are gehiago: ama, horrek gure artean daramatzan famili ardura, lotura berezi eta guzti. Lortzen al duzu bi alderdi edo atal horiek elkar uztartzea?

Egia esan, nekez, nire kasu berberean dauden beste emakume askori –eta gaur egun gizonezko askori ere– gertatzen zaion bezala. Eta zailtasunen erditik saiatzan naiz bi atal horiek ahalik eta hobekien eramanen. Dena den konparatzen ditut nik neronek nire amarekin-eta bizi nituen egoerak eta ez dute zer ikusirik gaur gure familian bizi ditugunekin. Nik esango nuke "normaltasunez" bizi dudala galdetzen didazuna; gaur egun bizi den "normaltasun" horretan: umeak gurasoekin edo amarekin hain etengabea egoten ez diren normaltasun horretan. Gaur oso zaila da umea etxera etorri eta aita edo ama edo biak beti hor izatea.

Aipatzen zenituen neke horien ildotik zeintzuk dira, zuretzat, zailtasun aipagarrienak?

Norberagandik kanpo geratzen diren zailtasun konkretu batzuk baino antolakuntza da, nire ustez, une berean zailtasun eta giltzarri. Horrek agian exijitzen dio norberari barne egoera berezi bat familiarekiko. Hau da, ni behintzat saiatzen naiz nahi adina ordu ezin badizkiot eman umeari beste era batera betetzen geratzen zaizkidan ordu apurrak edo beste harreman batzuk mantetzen berarekin. Hitz bitan: daukadana ongi aprobetxatzea; adibidez, hitz egiteko. Zeren eta lehen baino joera gutxiago baitago gaur hitz egiteko, ze lehen baino gauza gehiago dituzte egiteko, edo telebista, edo bideoa, edo bideo-jolasa eta ez-dakit-zer. Nik uste momentua aprobetxatu behar dela.

Eta zure egoera profesional hori dela-eta, zer nabari duzu hainbat beste emakumeren



aldean zuri tokatu zaizun abantailatzat?

Nire esperientziatik begiratuta oso gauza aberasgarria da niretzat gustatzen zaidan lanbide batean jardutea: betea sentitzen naiz, gustura. Hau da, pisatzen hasten banaiz nire profesioa dela-eta izan ditudan eragozpenak eta onurak, aukera gehiago daukazu gustatzen zaizun lan bat egiten baduzu aldeko pisua handiagoa izatako zeure bizitzan kontrakoak baino.

Egia da nik daukadan lanak ardura gehiago exijitzen duela, normalki nire profesioak markatzen duena baino. Hau orokorki esanik, nik ezin dut baloratu nire egoeratik beste egoera bat. Hori baita onena: egoera arrunt batean dagoen emakumeen batek nik neurean adina abantaila atera ahal izango lituzkeela betea sentitzen den hartan.

Hori esanda, nire ikuspegitik behintzat, ona da pertsonalki emakumearentzat lan egitea: autonomi maila bat ematen dio ekonomi aldetik, gizarte aldetik harremanak izatera bultzatzen du eta, horren ondorioz, jende gehiagorekin hitz egin dezakezu eta aberastu egin zaitezke pertsona aldetik. Etxean sartuta egotea zure seme-alabekin —norberaren hautapenak hautapen eta horiekiko errespetu osoz— ezin da uka objetiboki begiratuta ingurune mugatuago batean mugitzea dela. Eta berririo diot hautapen hau egin duten emakumeenganako errespetu osoz, aitortu egin behar da bueltatze-mugimendu bat somatzen dela gure gizartearen: bularra ematea dela etab.

Zure lana, hizpide dugun ikuspegi horretatik, behatoki bat da Euskal Herriko egoera ikusteko, bi dugun uneari pultsua hartzeko...

Bai kazetaritza (baina kazetaritza lana, ez bakarrik nire postua) beti izan da herri baten gaineko behatoki aparta. Nik beti esan izan ohi dut

kazetaritzaren alde ona eta alde txarra horixe dela: guztien miseriak ikusten ditugula, baita inoiz agertzen ez direnak ere: Ikusten duzu nola agertzen diren eta gero nola funtzionatzen duten politikariek, nola prentsa-arduradunek eta nondik-norakoak diren batzuen eta besteen alde on eta txarrak, oso txarrak. Gure lanean ondo baino hobeto ikusten dira gure gizarte handitsu honen giza miseriak.

Eta zure lan eta betebeharrak direla-eta zer oihartzun jasotzen duzu zure familiatik, zure semearen aldetik batez ere?

Alde batetik oso exijentea da Eneko nirekin eta niri berarekiko tokatzen zaizkidan gauzetan; batez ere aldaketaren bat ekarriz gero, edo ordutegia apurtu beharra. Gustatzen zaio eta harro egon ohi da telebistan-edo ikusten nauenean, edo sariren bat jaso dugunean, baina oso momentuko gauzak izaten dira horiek eta normalki oso exijentea da nirekiko dituen "esku-bideetan" eta ez du oso ondo eramaten lanagatik berak atzeratu behar duenean.

Orain arte, nolabait esateko, kazetaritza-familia ardatzen inguruan aritu gara. Eman dezagun beste urrats bat gure elkarrizketan eta begira diezaiozun zure profesio horri. Kazetaritza gizarte-zerbitzua da, ofizioa, ogibidea... eta baita bizibide bat ere. Ikastolak, bere aldetik, oinarritzko lehen prestaketa urrunekoa eman nahi dio ikasleari horietarako. Zure ikuspegi eta bizipenetik abiatuta, zer gaitasun, trebezia... izan beharko lituzke lanbide horretatik jotzeko asmoz den haur edo gaztetxoak?

Kuriositatea, nik uste. Eta esplikatu-koto dizut. Gaur egun galtzen ari den gauza da eta gaur kazetaritza egiten den moduak eta teknikak berak ere asko baldintzatzen gaituzte: ordenagailu bidez egiten dugu lana,

informazio asko ere ordenagailuz sartzen zaigu eta kazetariak, nahi badi, mugitu gabe bete dezake bere orria: buelta asko eman gabe informazio pila bat sartzen zaio toki desberdinetatik eta bera bide-ratzaile huts bat bihurtu daiteke.

Lehen ez zen horrela: bazeuden agentziak, baina ia berritik idatzi behar zen dena. Eta hortxe sartzen da nik esan dudana kuriositatea: idatzi beharrak, notiziari puntu atera beharrak datuak konfrontatzera, ziurtatzera eta gauza ororen gainean galdezka jardutea eskatzen zuen, plazara joango zen notizia deigarri izan zedin... hori dena norberak lantzen duen gauza da, ez dator bere kasa; ez.

Horri deitzen diot kuriositatea (ez morboa): ernai egotea, gauzen jakinminez izatea, gertatzen denaren aurrean konformagaitzak izatea eta zergatik gertatzen ote da horrela galdetzea. Hori da, niretzat, bejarko lukeen lehen "gaitasuna".

Aurrekoaren parean, gazte horrek zer lilura, amets, irudikapen... kendu beharko ditu burutik zure lanbidetik abiatzeko?

Oso tipikoa da esatea: "kazetari egingo naiz mundua ezagutzeko eta jendea ezagutzeko". Hori gutxi batzuen esku dago. Kazetari izatea ez da gerra-korrespontsala izatea eta arrisku artean mugitzea; jendeak uste duena baino askoz gauza xumeagoa da. Lanbide hau ez balitz, egingo ez zenituzkeen harreman batzuk egiten dira agian, baina jendeak uste duen baino normaltasun handiagoa dago kazetarion artean.

Eta zer aholku emango zenioke lanbide horretatik abiatu nahiko lukeen mutiko-neskatuari?

Irakurtzea. Irakurtzea, sin falta. Izan ere irakurtzen ez duen pertsona batek ezin du ondo idatzi. Irakurtzea esatean diot ez egunkariak: literatura batez ere. Gainerako



aholkuak irakurketak berak eman-go dizkio.

Zure azken erantzunari helduz, zure lanbidean hizkuntza (idatzia edo ahozkoa) duzue "tresna" edo baliabide garrantzitsuenetakoa. Eta ikastolatik ari garenez, zein dira kazetariok euskarari topa ohi dituzuen zailtasun nabarmenenak? Eta zein, euskaragatik dituzuen abantailak?

Hizkuntza aldetik badago oraindik eragozpen edo zailtasun bat euskaldunon artean: gure hizkuntza ez dagoela normalizatua eta hori arazo bat da hizkuntzaren profesionalak ez garenontzat. Adibidez, sarri aldatzen dira arauak, gauza asko finkatu gabe dago oraindik, termino berri pila bat non-nahitik sartzen dira hizkuntzara eta kazetariok ez daukagu euskaraz egiteko estilo bat finkatuta. Badakit hori ez dagokiola Euskaltzaindiari egitea, geuri baino... baina ez daukagu borobilduta oraindik. Erreferente bat daukagu: Euskaldunon Egunkaria eta besteok esperientzia horretaz baliatzen eta egokitzen gara.

Euskarak gure lanbidean dakartzan abantailen artean, berriz, lanarena aipatuko nuke. Gaur egun kazetari izateaz gain euskaldun izateak asko laguntzen du lana aurkitzen, abantaila argia da. Esate baterako Gara egunkarian gaztelaniaz bezainbat euskaraz idazten dakiten profesionalak hartzen ditugu. Euskara plusbalioa da gaur etorkizunerako eta ziur nago gero eta gehiago izango dela. Begiratu besterik ez dago gure arteko komunikabideei.

Zer erronka du aurrez aurre gure hizkuntzak kazetaritzan?

Ba batez ere —eta ez da gutxi— hizkuntza aldetik normalizazio maila batera iristea. Gero euskara bigarren maila batean ikusten da gure gizartean eta, ondorioz, baita gure profesioan ere (euskaraz ez dakiten profesionalak bidaltzea zenbait prentsaurrekotara...); gero eta

gehiago zabaltzen ari den haiek euskara hutsean egiteak leku jasoa goa eman behar lioke pixkana euskarari.

Zure esperientzia profesionaltik, zein dira azken 20-25 urteotan euskarak gaurko gizarterako egin dituen aldaketarik, egokitzapenik aipagarrienak?

Aurrerakada handia egin du euskarak; pentsa: ni *Punto y Horan* hasi nintzenean orri bat bakarria egiten zen euskaraz eta, gauzak konpondu ez badira ere, ezin uka asko aldatu direla. Guk, adibidez, *Garan* %35 sartzen dugu gutxi gora-behera euskaraz. Lehen deus ere sartzen ez zutenek, berriz, artikuluren bat edo sartzen dute. Aldaketak hizkuntzaren kalitatetik, ulergarritasunetik begiratu ere, nik uste kazetariok ahalegin handia egiten dugula hizkuntza xumea, erraza, esaldi sinpleekin egiten; agian euskararen normalizazio faltagatik. Nolanahi ere euskararen irabazitan izango delakoan nago.

Zer ekarpen egin diezaioke euskarari Oihartzun bezalako udalerrri euskaldun batetik sor litezkeen biharko kazetari berriek?

Aparta, zalantzarik gabe. Azken urteetan euskara salbatu eta batua indartu beharraz gehiegi begiratu eta zaindu ez den, baina gaur egun gero eta arreta handiagoa jartzen zaion puntu honetan: bakoitzaren sintaxi, joskera, hizkera... aberatsa izatean, tokiko ñabardurak jasotzean, euskalkiak... Irratietan eta gero eta gehiago kontuan hartzen duten gauza da, baina baita idatzizko prentsan ere; guk adibidez, *Garan*, hasieratik erabaki genuen iparraldeko euskarari bere txokoa ematea, baita bizkaierari ere. Horrek euskara zerbitzu on bat eskatzen du, pertsona ongi prestatuak edukitzea jakiteko zer den edo ez den jatorra edo euskalki batekoa

TXINPARTAK

Bukatu aurretik, aldizkariko "kazetari-taldearen" eskerrarekin batera, mesedetxo bat eskatu diot: Txinparten gaudenez, ea honako txinpartei erantzun al dien. Baietz esan didanez, hona Mertzteren txinpartak.

Esazu labur-labur ondorengo hitzok sortarazten dituzten oihartzuna:

1. Ikastola:

Eneko, nire semea.

2. Euskara:

Euskal Herriak duen erronkarik nagusietakoa.

3. Guraso:

Ardura.

4. Irakasle:

Konfidantza.

5. Haurtzaro:

Oihartzunek jasoa.

6. Txinpart-en lehen begiratzaren dut...

Azala

7. Txinpart-eko atal bat:

Elkarrizketak ditut gustuko.

8. Txinpart-en sartuko nuke...

Gurasoentzat aholku batzuk; praktikoak.

9. Txinpart-etik kenduko nuke...

Deus ez.

10. Txinpart-ek beharko luke...

Ikastolako ikasleen inplikazio gehiago.

Esteban J. Agirre



OIARTZUNGO IBAN IGERILARIARI ELKARRIZKETA



Iban Agirre 25 urteko igerilari oiartzuarra da. 11-12 urterekin udan ikastaro batzuk egin ondoren hasi zen igeri egiten. Haurtzaro ikastolan egin zituen 8. maila bitarteko ikasketak. Momentu hauetan Farmazia 4-5. maila ikasten ari da. Gaur egun igeriketa arloan da ezaguna. Goi-mailako igerilari moduan Cataluñaako C.N.Cen (Club Natación Cataluña) hasi zen bere erabakiz duela bi urte, 1998ko tenporadan. Aurten, 50 m. brazan, Espainiako txapelketan lehen postua lortu zuen, Espainiako errekorra gaindituz eta 100 m. brazan bigarren postua lortu zuen. Honez gain, tenporada honetan 50 m. brazan munduan 3. postua lortu du 28.66 denborarekin. Hona hemen berari telefonoz egindako elkarrizketa, behar bada motza, baina atsegina.

Inoiz pentsatu al zenuen maila honetara iritsiko zinenik?

"Ez, inoiz ez nuen pentsatu hainbestera iritsiko nintzenik".

Zerk bultzatu zintuen hara joatera?

"Hobeto preparatzeak, igeriketa serioago hartzeak".

Non nahiago duzu, Cataluña edo hemen?

"Cataluña baliabideak hor edukiko banitu hor".

Egunero entrenatzen al duzu?

"Astelehenetan, asteartetan, ostegunetan eta ostiralean bi aldiz. Asteazkenetan eta larunbatetan behin."

Zenbat ordu entrenatzen dituzu egunean?

"3 ordu eta erditik 4 ordu eta erdira".

Gogorra al da?

"Bai, oso. Batez ere goizeko 6etan esnatzeak gogorra bihurtzen du."

Zein da zure eguneroko plana?

"Arratsaldeko laurak bitarte: gosaldutik, entrenatutik eta bazkaldutik eta lau eta erdietatik aurrera ikasi".

Dieta bereziren bat jarraitzen al duzu?

"Ez, baina beharko nuke".

Depilatzen al zara?

"Bai".

Eraginik ba al du igeri egitean?

"Bai, nire ustez".

Zure ustez zer da garrantzitsuena igeriketarako?

"Lagunak egitea eta egunero helburu zailagoak jartzea."

Europako txapelketan zer espero duzu?

"50m brazan finalera iristea eta 100m brazan Olinpiadetakarako beharrezko denbora lortzea".

Sydneira joateko esperantzarik ba al daukazu?

"Bai, badaukat".



Zein da zure hurrengo txapelketa?
"Gran Premio de Mónaco".

Ez al zaitu aspertzen igeri egiteak?
"Ez, oraindik ez".

Denbora asko pasatzea pentsatzen al duzu igeriketan?

"Bai, denbora hobea lortu ezin dudan bitartean behintzat, bai".

Zer egitea gustatuko litzaizuke igeriketa mundua utzi ondoren?

"Ikasketak bukatu eta ondoren farmaziarekin zerikusia duen lanen batean hasi".

Igeriketa alde batera utzita, zerbait desberdinik egiten al duzu?

"Parrandak lagunekin, zinemara joan, irakurri... (persona guztiek bezala)".

Ze oroitzapen dituzu Haurtzaro ikastolaz?

"Irakasleez asko gogoratzen naiz: Lupe, Joxin, Arantza Madariaga... Gizarte zen nire arlorik gustukoen, Gaztelera, ordea, ez nuen batere atsegin. Gustura hartuko nituzkeen bertan hiru urte gehiago, baina nire garaian BBBrik ez zegoenez, 8. maila arte bakarrik egin nuen".

Bueno Iban, luze egon gintezke berriketan, baina lehen genekiena baino zerbait gehixea-go badakigu eta gaurkoan honetan bukatuko dugu. Nola esaten da "agur" katalanez?

—Adeu— Bueno, bada, adeu eta beste bat arte.

Haurtzaroko igerilariak: Liher eta Onintza

ENTREVISTA AL NADADOR OIARTZUARRA IBAN AGIRRE

En esta entrevista realizada por los nadadores de Haurtzaro, Liher y Onintza, Iban Agirre nos cuenta su trayectoria como nadador. Así sabemos que a los 11-12 años se inició en este deporte. Iban cursó sus primeros estudios en Haurtzaro Ikastola y actualmente estudia en Barcelona la carrera de Farmacia. Como nadador de élite pertenece al Club Natación Cataluña, y este año ha conseguido el primer puesto en 50 mts. braza en el Campeonato de España, batiendo el record estatal. Además ha logrado el tercer puesto en el Campeonato mundial con un tiempo de 28.66. Para terminar, nos cuenta que guarda un grato recuerdo de su paso por nuestra Ikastola.



IKASTOLAKO GARBITZAILEEKIN SOLASEAN



Goizero ikastolara etortzen gara eta gure gelan sartu. Alde guztietara begiratu eta garbia dago. Baina nola? Atzo bertatik irten ginenean, berandu zelako, dena hankaz gora utzi genuen!

Ah! Garbitzaileak izan dira! Nola egiten ote dute lan? Gustatuko ote zaie? Galdera mordo bat ditugu eta hauen erantzuna jakiteko garbitzaileekin beraiekin hitz egitea izango da onena.

Kaixo denei, zuei galdera batzuk egitera etorri gara. Erantzungo al dituzue? Bai? Ba, prestatu gure jakinmin guztia asetzeko:

1. Zein da, zehazki, zuek egiten duzuen lana?
Gure lana ikastola garbitzea da: gelak, idazkaritza, komunak... Den-dena garbitzen dugu leihotako kristalak izan ezik.

2. Zenbat garbitzailek egiten duzue lan ikastolan?
Jantokiko garbitzailea kontuan hartzen badugu, 8 garbitzailek egiten dugu lan ikastolan.

3. Nola banatzen duzue ikastolako lana?
Bakoitzak bere gelak ditu garbitzeko, beti berak dira. Beno, gutako batek gelak garbitu beharrean idazkaritza garbitzen du eta beste batek jantokia. Beste guztiek bakoitzak 6 gela garbitzen ditugu.

4. Zein da zuen ordutegia?
Ikastola garbitzen dugunok 17:00 etatik 21:00 etara egiten dugu lan eta jantokiaz arduratzen denak 14:30 etik 17:00 etara egiten du.



5. Zuen lanean zer da atsegiena eta zer da zailena?

Errazena mopa pasatzea da, berehala bukatzen dugu eta. Zailena lurrean margoak eta kola egoten denean da, hauek garbitzeko espatula erabili behar dugu-lako eta lan neketsua da.

6. Zenbat denbora erabiltzen duzue gela bat garbitzeko?

Ez dugu denbora zehatz bat. Gela nola dagoen araberaren denbora gutxiago edo gehiago erabiltzen dugu.

7. Gela guztiak berdinak al dira?

Ez, denak ez dira berdinak. Badaude gela batzuk beti garbiak egoten direnak eta beste batzuk alderantziz: zikinak egoten dira ia beti. Oso ezberdinak dira gelak.

8. Zein maila da zailena garbitzeko?

Denak antzekoak dira. Pentsa genezake txikien gelek izan behar dutela zailenak garbitzeko baina ez da hala gertatzen.

9. Noiz da zailagoa zuen lana?

Jai edo egun bereziren bat ospatzen denean ikastolan gure lana zailagoa izaten da.

10. Zer tresna erabiltzen dituzue zuen lana betetzeko?



Asko erabiltzen ditugu: fregona handiak, mopa, erraz-tza, pala, zapiak, estropajoa, espatula, zakarretako poltsak, jaboia, leja, bim hautsa e.a.

11. Trukorik ba al duzue garbiketa azkarrago egiteko?

Bai, azkarrago egiteko baino gehiago, errazago garbitzeko ditugu: Kola garbitzeko ondo lehortu arte utzi eta gero espatularekin errazago kentzen da, pintura-ri ura bota eta biguna dagoenean berehala garbitzen da...

12. Gela bat oso zikina badago, zer egiten duzue?

Besteekin egiten dugun berdina: garbitu.

13. Inoiz egin al duzue gela batean sartu eta ezer egin gabe irten?

Ez, nahiz eta oso zikina egon beti garbitzen dugu.

14. Zenbat urte daramazue lan hau egiten?

Denek ez daramagu denbora bera: batzuek 21 urte, beste batzuek 18 eta beste batzuek 2 urte.

15. Bitxikeriaren bat, gauza arraroren bat gertatu al zaizue?

Ez, ez dugu ezer bitxirik kontatzeko.

16. Beste lanik egiten al duzue?

Bai, etxeko lanak egiten ditugu, hori ere lana baita.

17. Ikastolako ekintzetan parte hartzen al duzue?

Bai, baina ikusle bezala bakarrik.

18. Ba al dago gizonik zuen lanean?

Ez, gurekin lanean ez dugu gizasemerik.

19. Zerbait baliotsua aurkitzen baduzue, zer egiten duzue?

Horrelakoetan edo idazkaritzara eramaten ditugu edo bestela mahai gainean uzten dugu irakasleak itzul dezan.

20. Zergatik egiten duzue lan hau?

Lan egin behar dugulako gehienek eta beste lanik aurkitu ez dugulako beste batzuek.

Mila esker zuen harreragatik. Orain pixka bat gehiago ezagutzen zaituztegu



LABURPEN TENTATZAILEA

1. Izenburua: Haize orratza.
2. Egilea: Antton Kazabon.
3. Argitaletxea: Elkar.



Bazen behin mutil bat enarak gustoko zituena. Bere ametsa, bere etxean kabia egitea zen. Baina berak ikusi zuenez

enarek ez zuten bere etxean kabirik egiten.

Pentsatzen ari zela zera erabaki zuen teilatuan Haize orratz bat jartzea. Eta horrela egin zuen. Hortik aurrera enarak mutilaren etxera joan ziren.

**ANIMO!
IRAKURRI**



ZANKOAK

Gaztelerako garaian zankoak egin ditugu. Material hau erabili dugu:

- Bi tomate poto (1/2kg).
- Egunkari papera.
- Bi soka mutur metro batekoak.
- Iltze eta mailu bat.



Orain zankoak egingo ditugu:

Tomate potoak hartu eta hustu. Bi potoen alboetan, izkinaren ondoan, zuloak egin iltzea eta mailua erabiliz.

Zulo horietatik soka muturra sartu eta izkinean lotu.

Egunkari papera hartu eta poto barrua bete.

Kolorezko paperak eta pegatinak erabiliz, zankoak apaindu eta JOLASERA!!

Ahora vamos a hacer los zancos:

Vaciar las latas y en cada lata, hacer un par de agujeros a cada lado de la lata cerca de la base, utilizando el clavo y el martillo.

Introducir uno de los trozos de cuerda por los agujeros hechos en la lata y llenar la lata con los papeles de periódico.

Con papeles de colores y pegatinas decorar las latas y ¡a jugar!

Alumnos de 4.B



C' est qui?

Elle est célèbre, surtout pour Obelix, parce-qu'elle est très jolie. elle est polie aussi, et très très mince, comme les maniquins. Pour finir, elle est gentil.

Il est méchant et très bavard. il doit parler moins. Il est coléreux et très arrogant.

Il a beaucoup de confiance en soi. Il a beaucoup d'initiative. Il a beaucoup de sens pratique mais il a peu de sens artistique. Il est, donc, peu créatif. Il est travailleur et courageux.


Iratí Etxebeste 3.A

Il est drôle, intelligent et poli. Il est aussi un peu bavard et très bon mais il n'est intelligent ni cultivé. Il est aussi un peu romantique. Physiquement, il est gros, très gros. Il a le cheveux roges et il porte deux tresses. Il aime beaucoup les sangliers et lutter avec les romains.

O. Moreno eta G. Labandibar 3.B



DENBORAPASA



Aurki itzazu bi irudi berdin.


LETRA ZOPA



F	G	C	R	A	I	O	V	E	A	N	U	P
I	J	L	B	O	G	A	R	D	E	P	Ñ	K
G	F	O	J	U	L	O	P	Ñ	K	L	S	A
O	R	I	V	A	L	D	O	L	M	N	P	L
S	C	A	J	O	K	N	B	G	R	U	D	B
G	T	Y	C	A	S	I	L	L	A	S	L	E
N	H	P	O	I	A	H	J	N	P	H	L	R
U	I	O	J	A	S	F	G	E	R	I	L	T
J	A	N	K	A	U	S	K	A	S	L	N	O
G	U	R	R	U	T	X	A	G	A	L	D	G
H	U	J	L	O	U	T	R	D	F	B	C	M
A	S	R	O	D	R	I	G	O	L	F	D	E
L	K	D	R	A	U	J	L	C	Z	A	L	B
N	L	N	C	U	E	R	P	O	R	L	R	E
K	J	L	N	B	T	A	S	E	R	I	P	O


AURKI ITZAZU 10 FUTBOLARIREN IZENAK.

AURKITU 7 AKATSAK



EGILEAK: ASIER.V eta ARITZ.B

DENBORAPASA



Aurki itzazu errepikatuta ez dauden bi irudiak.



HAURTZARO

Ikastola



fundazioa
fundación

